

Or

piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 109. alea 2005eko apirilaren 13



Elkarrekin
gingo dua

LARUNBATA-9 BILBOI
MANIFESTAZIO NAZIONALA
ESKUBIDE ZIBIL ETA
POLITIKOEN ALDE
ORAIN HERRIA-ORAIN BAKEA

AUTOBUSA 4retan.
APUNTATU LEHENBATILEHEN.

batasuna

Quiere
Pu

BOZKATU



aralar

denak
etorkizun
hobea
agintzen

DEMOKRAZIA eta BAK

Javier Madrazo
Coordinador General
Ezker Batua - Berdeak
Candidato a Lehendakari
Javier Madrazo
Ezker Batua - Berdeak
Taldea Koordinatzaile Nagusia
Lehendakariak




La izquierda vasca tiene su propia propuesta de paz: Diálogo, Consulta y Federalismo de Libre Adhesión

La izquierda vasca tiene su propia propuesta de paz: Diálogo, Consulta y Federalismo de Libre Adhesión. Ha llegado el momento de abordar un auténtico proceso de normalización política en Euzkadi, que nos permita pasar página a la violencia y consolidar un nuevo modelo de convivencia, en el que todas las ideologías estemos representadas. Se trata de un modelo de convivencia que permita a cada uno de nosotros vivir en paz y libertad, pero que también permita a todos nosotros vivir juntos en un mismo territorio. Este modelo de convivencia se basa en la voluntad de todos los ciudadanos de Euzkadi de construir un futuro común y compartido. La izquierda vasca incluye en su modelo de convivencia los principios de diálogo, consulta y federalismo de libre adhesión. Estos principios se corresponden a todas y a cada uno de las personas que integramos esta Comunidad decidir como queremos organizarnos. El Federalismo de Libre Adhesión es un punto de encuentro entre gentes y sensibilidades diferentes. Permite profundizar en nuestro autogobierno mismo tiempo afrontar otros retos, también importantes, como son el acceso a la vivienda, el empleo, la educación, los servicios y el medio ambiente. Este modelo de convivencia se basa en la voluntad de todos los ciudadanos de construir un futuro común y compartido. La izquierda vasca incluye en su modelo de convivencia los principios de diálogo, consulta y federalismo de libre adhesión. Estos principios se corresponden a todas y a cada uno de las personas que integramos esta Comunidad decidir como queremos organizarnos. El Federalismo de Libre Adhesión es un punto de encuentro entre gentes y sensibilidades diferentes. Permite profundizar en nuestro autogobierno mismo tiempo afrontar otros retos, también importantes, como son el acceso a la vivienda, el empleo, la educación, los servicios y el medio ambiente.

corresponde a todas y a cada uno de las personas que integramos esta Comunidad decidir como queremos organizarnos. El Federalismo de Libre Adhesión es un punto de encuentro entre gentes y sensibilidades diferentes. Permite profundizar en nuestro autogobierno mismo tiempo afrontar otros retos, también importantes, como son el acceso a la vivienda, el empleo, la educación, los servicios y el medio ambiente. Este modelo de convivencia se basa en la voluntad de todos los ciudadanos de construir un futuro común y compartido. La izquierda vasca incluye en su modelo de convivencia los principios de diálogo, consulta y federalismo de libre adhesión. Estos principios se corresponden a todas y a cada uno de las personas que integramos esta Comunidad decidir como queremos organizarnos. El Federalismo de Libre Adhesión es un punto de encuentro entre gentes y sensibilidades diferentes. Permite profundizar en nuestro autogobierno mismo tiempo afrontar otros retos, también importantes, como son el acceso a la vivienda, el empleo, la educación, los servicios y el medio ambiente.

maules... dea



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

BATXILERGOA A eta D EREDUETAN



BATXILERGORAKO
Aurrematrikula

UNI EIBAR

Tel. 943 20 84 44

APIRILAREN
25etik
MAIATZAREN
6ra



LANERAKO ETA
ETENGABEKO PRESTAKUNTZA



HIZKUNTZ NORMALKUNTZA
PROIEKTUA



KALITATE PLANA



"LEONARDO" PROGRAMA
EUROPARRA



LANGAI



ESKOLA ELKARTRUKEA

Uni
EIBAR

Otaola Hiribidea, 29 20600 EIBAR
Tel. 943 20 84 44 Faxa. 943 20 31 96
E-maila. uni@iesunibhi.com www.iesunibhi.com

BATXILERGOA

EGUNEZ eta GAUEZ A eta D ereduetan

- ◆ Natur eta Osasun Zientziak
- ◆ Teknologikoa
- ◆ Giza eta Gizarte Zientziak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio Kudeaketa
- ◆ Merkataritza
- ◆ Informatika Sistemen Ustiapena (A eta D EREDUAK)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio eta Finantzak (EGUNEZ eta GAUEZ)
- ◆ Nazioarteko Merkataritza
- ◆ Informatika Aplikazioen Garapena (D EREDUA)
- ◆ Informatika Sistemen Administrazioa
- ◆ Telekomunikabide eta Informatika Sistemak
- ◆ Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea



Gezur hutsa

ANDER EPELDE

Euskal Herria noizbait euskaldun izango da? Edo erderak irentsi edo asimilatu egingo du azukrea uretan bezela. Auskalo! Baina daramagun martxarekin mendeak beharko ditu, bidean ez badu pot egiten.

Zabal ditzagun begiak, zein da bazter guztietan entzuten den hizkuntza? Honi erantzutea erraza da, erdara. Gaur egun, zein bizi da euskara hutsean, ia-ia inor ez. Erdarak harrapatu ditu eremu guztiak eta gaizki ulertutako elebitasun hitz ponpoxoari esker, nagusi erdara.

Euskal Herrian denak euskararen alde daude (betikoak izan ezik) hori nabarmen ikusten da. Euskararekin zer ikusia duen edozein jaialdi eta ekintza, euskaldunak eta erdaldunak ere ez gutxi, trumilka han daude.

Baina, gero bizitza errealean, zer gertatzen da, ba, oso erraz amore ematen dugula, errazenera jotzen dugula. Horrela jai dago eta euskararen galtzoria dator.

Hizkuntzaren arloan beste arlo askotan bezala, itxurakeria edo fariseismo eta folklorekeria handia ikusten dut, aukeren arabera jokatzeko dugu.

Orain modan dago hirueleduntasuna (gaztelania, ingelesa eta euskara) ordena horretan, mundu globalizatu eta uniformatuan sartuak gaude eta.

Begira zer gertatzen den Euskal Herri osoan. Ingeleseko akademiak gainezka daude ikaslez, nahiz eta piperrik jakin ez euskaraz, baina ingelesa ikasten dute, ikasten badute (hori beste gauza bat), oso mo-

dernoak dira, eta nola galduko dute beren denbora preziatua euskara ikasten, mese-dez, izan gaitezen aurrerakoiak.


Orain arte idatzitakoaz, ez ezazue pentsa erdareti tirria diedanik, ez horixe. Euskaldun askoren iritzi berberetakoak naiz, hau da, zenbat eta hizkuntza gehiago jakin askoz hobeto, baina lehenengo, baina lehenengo norberarena, ama hizkuntza, norbere lurretako, eta gero beste guztiak aukeran, hizkuntza guztiak altxor aberastasun handikoak baitira, kulturaren eragile zuzen zuzenak.

Herri batean txertatzeko (integratzeko) herri hortako hizkuntzaz eta kulturaz jabetzea (batera baitoaz) bezalako biderik ez dago, beste guztiak desintegratzailea baita, gaur egun Euskara horren gutxi maite dutenei jokoak egitea, elebitasuna takian potian, baina eurak elebakar (erdaldun) hutsak izanik eta tolerantzia hitza hitzetik hortzera ahoskatzen dute eta horiei, demokratikoki euskara hilobiratu eta museoan sartu nahi dutenei, jokoak egitea besterik ez da.

Erne bada euskaldunok, azpijoko asko dago bazterretan eta euskara erabiliko dute apologia egiteko, baina igartzen zaie ez datozela asmo onekin, baizik eta maltzurkeriaz jokatzeko dutela, otso larruz jantzita datoz. Utz gaitzabela bakean eta benetan euskararen alde badaude, euskaraz egin dezatela beti. Eta orduan bakarrik sinestuko diegu.

Telegrafak

Kaixo irakurle. Stop. zera...Stop. Olatik Estaziñora bitarteko sahiesbidia zabal zabalik daguala. Stop. korbatadun inaugurazio eta guzti. Stop. arintasun edarra herrirako. Stop. batez be semaforuak desagertzen diran egunian. Stop. hori bai. Stop. Gila zubitik sartziki be badauka bere zera. Stop. ezagunak agurtu. Stop. ze mugimendu daguan ikusi. Stop. Udaltzainen begiradak eta aholkuak jaso... Stop. horrek be badauka bere zera, ezta?. Stop. Batasunari herrixan ekitaldixak egitia debekatzikiak bebai. Stop. horrek be badauka bere zera!. Stop. zera garrantzitsuago bat!. Stop. ekitaldixak antolatze askatasuna. Stop. hauteskundietan parte hartze askatasuna. Stop. dan danok daukagu geure ideiak trabarik barik eta legalki aurkezteko eskubidia. Stop. hori esan bihar leuke legiak eta geure barruak!. Stop. beste modutan ibiliko ginake. Stop. Plaza Zaharreko arratoien moduan danok, libre!. Stop. fumigatu arte behintzat!. Stop. ikusiko da zer lehendakari dakarren 17xak. Stop. orainarte kartel eta berba onak ugari, zera!. Stop. herrixan aurrekontuak onartu dira. Stop. baina datorren alian emongo dotsuegu horren berri. Stop. zera danak jakin deizuezen. Stop. eta Dantzari Egunion. Stop. dantza asko egin. Stop. egunez plazan eta gabian Gaztetxian. Stop. eta hurrengo egunian gelditu etxian bixamunakin... Stop. bai zera!





Argitaratzailea:
 Pil-pilean Kultura Elkarte
 Frontoi kalea 5. behea. PK 27 - 20590 Soraluze.
 Telefonoa 943 75 13 04
 comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
 pilpilean@euskaia.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)
Logotipoa: Jon Gabillondo (943751304 tel.)
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Azala: Silvia Vaz Caro
Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid
I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.

SORALUZKO UDALA EUSKO JAURLARITZA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Elkarrekin egingo dugu

Erreportaia

Alderdi gehienak euren programak azaltzen, kartelak itsastan eta larrosa eta karameluak banatzen ibili dira azken bi asteotan herrian baina ilegalizazioen aurkako ekimenak ere izan dira.

batasuna

La izquierda vasca tiene su propia propuesta de Diálogo, Consulta y Federalismo de Libre

Elaboración: Coordinador General Ekain Batua - Berdeak Candidato a Lehendakari Javier Madrazo Ekain Batua - Berdeak Candidato a Lehendakari

La izquierda vasca tiene su propia propuesta de Diálogo, Consulta y Federalismo de Libre (Arteski). Ha llegado el momento de actuar. Un auténtico proceso de normalización política en el País Vasco.

compartidos a fines y en cada caso que integramos esta Comunidad queremos organizarnos. El Federalismo de Libre Arteski

Elkarrekin bi...

Zorion agurrak



Eider Varela
Apirilaren 22an Zorionak!! Zenbat urte bete ditte etxeko poxpollinak??? Jarraitu betiko bezala, jatorra eta alai izaten. Etxekuen partez.



Lorea Ochoa
Hiru urte Zorionak potxola!! Muxu haundi haundi bat aita, ama, anaia eta gainotzeko senidien partez.



Maria Jesus Arrizabalaga eta Ekain Larrañaga
Apirilak 17 eta Apirilak 21 Zorionak bikote! Muxu haundi haundi bat etxeko danen partez.



Gaizka Madrid
Apirilaren 8an Zorionak pottolo! Zelako handixa egitten ari jaku gure txikixa! Muxu handi handiak! Etxekuen partez.



Iker Etxabe
Apirilaren 11an Zorionak txikito!! Muxutu handi handi bat! Segi hain jator izaten. Etxekuen partez.



Oier Fernandez
Apirilaren 13an 13 urte Sorte on Zorionak! Jon Gabarri eta etxekuen partez.



Urko Ruiz
Apirilaren 15ean urtebete Zorionak! Muxu haundi bat! Etxekuen partez.

jaiotakoak

Maria Etxezarreta Mendicuta
Euken Oliveri Lopez
Ane Rodrigex Arriaga

Ivan Couto Pasenau

hildakoak

Juan Jose Bikuña Basogain

Gutunak

PNV-EA GEZURRETAN ARI ZARETE, ZER IZKUTATZEN DUZUE?

Apirilaren 6rako hitzaldi bat antolatu genuen "Hauteskunde demokratikoak, ilegalizaziorik ez" lemapean eta horretarako Udaletxera zuzendu ginen, honek duen lokala eskatzeko, beste talde batzuk egiten duten moduan.

Egun batzuetara Oscar Gabilondo Alkate Jaunaren erantzuna jaso genuen: ez duzue baimenik ematen lokala erabiltzeko. Debekua, noski, guretzat baka-rik da.

Harritzekoa benetan Alkateraren jarrera. Lotsagarria, PNV-Earen jarrera. Ez duzue ba, behin eta berriro esaten "eskubide guztiak guztiontzat"? Non gelditzen dira gureak? Ilegalizazioaren kontra zaudetela errepikatzen duzue, baina ezinbesteko kolaboratzaileak bihurtu zarete. Azken egun hauetan te-lebistari begiratzea besterik ez dago (hauteskunde ez demokratikoak, er- tzantzaren jarrera gure mitinetan eta dagoeneko hitzaldiak egiteko ere debe-

ku).

Bai, gezurretan ari zarete. Jaso du- gun erantzunean diozue: "aipatu lokala hauteskundeetara aurkezten diren al- derdi politikoentzat gordeta dago", bai- na kasualidadez egun horretan libre ze- goen eta horrela aitortu ziguzun zeuk, Alkate Jna.

Azaldu ba behingoz benetako arra- zoia. Esan argi ta garbi Batasunak traba egiten dizuela eta gu erditik kentzeko edozer egiteko prest zaudetela, bai- ta PP-PSOEkin bat egitea ere, edo bestela nola ulertu daiteke jarrera hau?

Jarrera ez demokratiko hauen au- rrean eta euskal herritarren eskubide zi- bil eta politikoen defentsan, hauteskun- de hauetan bozkatu gorria, BOZKATU E.H.A.K.

SORALUZKO BATASUNA



IKASTAROAK

Debako arte eskola

Ekainean eta uztaillean, 40 ordutik 90 ordu bitarteko ikastaroak. Kalkografiako grabatuaren hastape- nak, zeramikaren eta tornu erabileraren hastapenak, egurra lantzeko taile- rra, brontze galdaketa artistikoa, zura- ren dekorazioa eta polikromatua, mar- molezko eskultura eta serigrafia zera- mikoaren hastapenak. www.debarte.net / Debarte@deba.net Tel. 943191804.

Informatikari Euskaldunen V. Bilkura

Softwaregintzaren erronka berriak izenburupean. Bi eguneko jardunaldiak egingo dira apirilaren 22an Donostian. Izen ematea apirilaren 22arte izango da zabalik. Udako Euskal Unibertsitateak (www.ueu.org) eta Miramon Enpresa Digitalak (www.enpresadigitala.net) antolatuta. Tel. 943821426.

LANA (900 110 111)

2 udaltzain. Legazpiko Udalean 2 udaltzain kontratatzeko oposizio-lehia- keta. Epea: Maiatzak 6

Begiraleak. EKIN BI, S.L. Udalekuetarako begiraleen eta zuzen- darien kontratazioa. Epea: Apirilak 21

Ofiziala. Bergarako Udalean Obra eta Zerbitzuetako Mantentze-lanetako Ofizial bat kontratatzeko oposizio- lehiaketa. Epea: Apirilak 15

Udalekuetarako begiraleak. Arrasaten udalekuetan lan egiteko begiraleak kontratatzea. Epea: Apirilak 18

HERRIKO IRAGARKIAK

Lan bila

Neska kubatarra naiz eta lan bila nabil. Pertsona langile eta jator bat behar baduzu, deitu. Edozertan lan egiteko prest. Hostalaritza eta Turismoan graduatua naiz eta esperientziaduna. Ingelesa dakit eta euskaraz ikasteko asmoa dut. 943751581 (Janét)



Zer irizten dotsazu?

Juan Pablo bigarrena Eliza Kristauaren arduradun nagusiaren heriotzak mugimendu handia eragin du gizartean eta batez ere kristau komunitatean. Gizarteko ahots askok, elizak bere mezua eguneratu behar lukeela aldarrikatu dute.

Zelakua izan bihar leuke Eliza Kristauaren buru izango dan hurrengo Aita Santuak?



Mari Karmen Eguren
76 urte
Monja

“Espiritu Santuak” erabaki bihar dau zeinek izan bihar daben hurrengo Aita Santua, eta ez gizonak. Bere fediak in erabakitzen badabe eta ez beste interes batzuekin, eukiko dogu Aita Santurik onena.



Jaime Azkona
71 urte
Jubilatua

Gutxienez Juan Pablo II. modukua izatia eta gaztiekin egotia, bidai asko egitia eta Juan Pablo baino zabalagua izatia aspektu batzutan.



Jose Ignacio Zazo
31 urte
Igeltserua

Gaztiekin egotia, zabala izatia... baina ezinezkoa izango da danakin ados egotia. Pertsona arrunta izan bihar litzake.



Begoña Txurruka
58 urte
Dendarixa

Espiritual eta zabalagua izatia pobriekin ,sudamerikara begiratzia. Gutxi gora behera holakua izan bihar leuke hurrengo Aita Santuak.



Kontxi Elkoro
62 urte
Etxekoandria

Nere ustez Aita Santu barrixak gaztia izan bihar dau, gaztiei laguntasuna emoteko eta hirugarren mundua bultzatzeko.



Imanol Mendizabal
41 urte
Tornillerua

Gazte gaztia ez dau izan bihar ze jakin egin bihar dau mundua zelakua dan. Nere ustez azkenak lan asko egin dau eta barrixak antzerakua izan bihar dau.



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teleline.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa



HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuesto konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Olatik Estaziora bitarteko saihsbide berria inauguratu zuten apirilaren 7an

Apirilaren 7an, saihsbide berria eta Zeletako zubia inauguratu zituzten Jaurlaritzako eta Udaleko ordezkariak. Bi norabideetako den arren Saciako lanak amaitu eta aparkamentu berriak egin arte, ezkerreko norabidea aparkamentu moduan erabiliko da. Ekitaldira, Eusko Jaurlaritzaren izenean Manuel Urkijo, Ekonomia, Aurrekontuen eta Kontrol Ekonomikoko sailburuordea eta Iñaki Beristain, Ekonomia eta Plan-gintza Zuzendaria etorri ziren.

Udala, berriz, alkatea eta udal gobernuko zinegotziek ordezkatu zuten. Saihsbidearen irekitzearekin Izartu Iaren programari bukaera eman dio Udalak. Izartu II programako lanak hasiko ditu orain. Herriaren erdigune historikoa eraberritzeko lanak besteak beste.



Olatik Estaziorako saihsbidearen inaugurazio ekitaldia.

Parkinson gaixoei laguntzeko Deparkel elkarteak Eibarren



Apirilaren 11koa, astelehena, Parkinson Gaixoaren Eguna izan zen. Data aprobetxatuz, Eibarko zenbait gaixo eta bolondresak Deparkel, Debabarrenako Parkinson Elkarte sortu berriaren aurkezpena egin zuten prentsaurrean.

Debabarrenean 200 gaixo omen

daude Parkinsonak jota, eta Elkarte berriaren helburua horixe izango da, elkarteak ezagutarazi eta poliki-poliki gaixo hauek bertara erakartzea.

Jesus Astigarraga Deparkel-eko presidentek adierazi digunez, gaixoa ez da sendatzen, baina bere bizi kalitatea asko hobetu daiteke ariketa fisikoaren bitartez.

15 bazkidek osatzen dute elkarteak gaur egun eta Jesus Astigarragaren esanetan Donostiako zentroan baino errezago lortuko dute gaixoei Deparkelen laguntza. Eskuragarriagoa izango da bai laguntza fisikoa zein psikologikoa. 10 hilabeteko esperientzia daukate gaixoei, eta astean 3 egunetan elkartzeko dira Eibarren daukaten lekuan.

Interesatuak telefono honetara jotzen dezakete: 651364371

Kooperatibaren urteko batzarra

Apirilak 28an, osteguna, Placencia Kontsumo Kooperatibaren urteroko batzarra egingo da abadetxeko kapillan. Lehenengo deialdia 20:00etarako dago eginga eta bigarrena 21:00etarako.

Jai Herrikoien Aldeko Galtzagorri Batzordeak jaiak prestatzeari ekin dio

Jai Herrikoien eta Partehartzaileen Aldeko Galtzagorri Batzordeak aurten go Santiago jaietarako egitaraua lantzeari ekin dio. Hiru bilera egin dituzte dagoeneko eta datorren asteburuan egingo dute laugarrena. Inguruko herrietako batzordeetako ordezkariak gonbidatuko dituzte bilerara bertako esperientziak ezagutu eta egitaraua aberasteko asmoarekin.

EDURTZA kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Instalazioak
Berrikuntzak

KIRU muntaiak

Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioak eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 76 99 85
Eskuko tfnoa 615 70 27 65



HAUTESKUNDEAK 2005

Alderdi gehienak euren programak azaltzen, kartelak itsastan eta larrosa eta karameluak banatzen ibili dira azken bi asteotan herrian baina ilegalizazioen aurkako ekimenak ere izan dira. Dударik gabe, Batasuna eta Aukera Guztiak-en ilegalizazioek eta EHAK alderdia aurkeztu ahal izateak markatu dute hauteskunde kanpaina honen ibilbidea.

Ondorengo orrietan, herrian ordezkaritza ezaguna duten (EAJ-EA, Batasuna, PP eta PSE) alderdien izaeran eta sentsibiltatean sakondu nahi izan dugu. Alderdien zerrendetan aurkeztan airen soraluzetarren berri ere jaso dugu. Hori guztia, domekako botuaren norabidea erabakitzeko lagungarri gertatuko zaizuelakoan.



Mikel Santiago

Mikel Santiagorekin Bergaran egin dugu elkarrizketa. EAJ-EA koalizioak mitina eman du Eskola Elementalean eta ondoren, jarraitzaileendako luncha prestatu dute Batzokian. Iñigo Alberdik Batzokiko eskaileratan gora eraman eta gela huts batean utzi gaitu.



Zer dago jokoan hauteskunde hauetan?

Asko dago jokoan. Gure herri-nortasuna aitortzeko bidean, aurrera edo atzera egiteko hauteskundeak izango dira. Gu geu izaten jarraitzia nahi dugu. Ez dugu herri guztia ordezkatzen baina gobernua PP-k eta PSE-k hartuko balute, hezkuntza, ongizate arloan, euskera edo bestelako gai sozialetan egindako guztia galtzeko arriskuan geundeke.

Zergatik eman behar genioke gure botua EAJ-EA koalizioari?

Etorkizuna horren baitan dagoelako. Politikoki, gure herriaren erabakiak onartu ditugu. Bestalde, orain arteko emaitzak onak izan dira eta bide hortan jarraituko dugu. Botoen indarra behar da gure proposamenak aurrera eramateko. Fuerte egotea komeni da Madrilekin negoziatzeko.

Joan zan astean Batasunaren hitzaldi bat egiteko ez zuen baime-nik eman Udalak legiari kontra ez egitearren. Erreferenduma Espainiako legien aurkakoa izango da ba...

Badirudi guk ilegalizatu dugula Batasuna eta hori ez da horrela. Ilegalizazioaren kontra gaude. Batasunak hauteskunde hauetan parte hartzea nahiko genuke, eta pozik gaude EHAK-k hauteskundeetan parte hartzeko aukera daukako, nahiz eta Batasuna ez izan. Batasunaren hitzaldiari dagokionez, nire eritziz

legeak betetzeko dira -horrela egin du kasu honetan Udalak-, baina uste baldin badugu adierazpen askatasuna urratzen ari direla, neurri batean bermatu egin behar da alderdi guztien askatasuna.

Elkarbizitarako ze proposamen egiten duzue?

Oinarria da guztien eskubide guztiak errespetatzea; bizitzeko eskubidea, guztiok dugun adierazpen askatasuna eta herri bezala erabakitzeko aukeragun eskubidea errespetatzea. Elkarbizitarako giltza hori da.

“PP-PSE saku berean sartuko nituzke. 4 urtetik hona formak aldatu badituzte ere, herri honetarako dauken proposamena bera da: Madrilen menpe jarraitzia”

Beste alderdien inguruan zein eritzi duzue?(PSE, PP, BATASUNA-EHAK, EB, ARALAR)

PP eta PSE saku berean sartuko nituzke. 4 urtetik hona formak aldatu badituzte ere, herri honetarako dauken proposamena lehengo bera da: madrilen menpean egoten jarraitzea.

-BATASUNA-EHAK:

Batasunaren Anoetako proposamena itxaropentsua izan zen baina gaur egun

ez dut ikusten hori gauzatu denik. Ez dut ikusi gatazka kaleetatik atera denik. Elkarrekin adostasunetara heltzeko dau-den oztupoak gainditzeko ez dute oraindik pausorik eman. Dena dela, itxaropentsu naiz.

EHAK-z esango nuke, Batasunaren aukera zuzena ez izan arren, pozten naitzela behintzat aukera hori badaukatela-ko.

-EB: alderdi ausarta izan da PNV eta EA-rekin gobernua osatzeko gai izan delako, Madriletik presio haundiak jaso arren. Ondo jakin du horri eusten legegintzaldi guztian.

-ARALAR: uste dut pauso garrantzitsu bat eman zuela, ezker abertzaletik sortu eta ETA-rekiko hartu zuen jarrerarekin. Gaur egun bere espazioa nahiko mugatua daukala iruditzen zait.

Zenbat eserleku lortuko dituzuela uste duzue?

Ez da erreza izango baina gipuzkoako 13. a ateratzea nahiko nuke, eta edo-zelan ere gitxienez PPK eta PSEK batera baino bat gehiago.

Non jarraituko dituzue hauteskundeetako emaitzak?

Donostian

Eta 18an zer?

Danok lanera herri hau aurrera ateratzen jarraitzeko. Gertatzen dena gertatzen dela aurrera egin..

batasuna

Pili Valero

Arrano Elkartera jo dugu alderdi ilegalizatu bateko bozeramaile ilegalizatua elkarrizketatzera. Pilik galderak irakurri ditu. Momentu politiko oso konplikatuan gaudela eta erantzunak gainontzeko Batasuna kideekin adostu behar dituela esan digu. Idatziz ekarri dizkigu erantzunak.



Zer dago jokoan hauteskunde hauean?

Hauteskunde honetan instituziño baten ordezkartza baino gahixago dago jokuan. Euskal Herrixak urtietan sufritzen dabean konfliktuari behingoz irtenbidia emotia eta herritar guztion eskubide zibil eta politikuen defentsa egittia, edo eta autonomia estatutuaren erreformari bidia emotia.

Zergatik eman behar genioke gure botua EHAK-ri?

Lehenengo eta behin esan bihar dogu EHAK hauteskunde honetan ego-tiak ez dabela suposatzen honek anti-demokratikuak ez diranik, kontuan hartuta Batasuna eta Aukera Guztiak kanpua laga dittuela.

Baina, EHAK bakarra izan da, bere programa alde batera laga eta egoera larri honi irtenbidia emoteko, eta herritarrok dittugun eskubide zibil eta politikuen alde azaldu dana. Demokraziaren eta bakearen aldeko apostu sendoa egitten dau. Horregaittik eskatzen dau Batasunak EHAK-rendako botua.

Anoetako proposamenean gatazka kaletik mahaira eramateko apostua adierazi zuen Batasunak. ETak ez du su etenik deklaratu eta herrian bertan kale-borroka ekin-tza bat izan da. Ze irakurketa poli-tiko egiten duzue?

Anoetako proposamena bake propo-samena da. Daukagun gatazka kaletik

mahaira eruateko, lehenengo mahixa osatu eta bertan jartzeko prest egon bihar da. Batasunak garbi esan dau gaur bertan jarriko dala mahai horretan. Bestiak ez dabe, momentuz, ezer esan, ezta asmorik azaldu. ETA berak be, orain dala gutxiko elkarrizketa batian, bere adostasuna erakutsi dau Anoetako proposamenarekin. Gehixago esango genduke, esfortzu haundixak egitten dabile-la esan dau, gobernuarekin komunikazio bidiak zabaltzeko. Beraz guk galdetzen dogu : zeintzuk emon dittue pausuak eta zeintzuk ez?

Elkarbizitarako ze proposamen egiten duzue?

Errespetoa ideia guztiei, proposamen guztiei. Eta hau horrela izanda, hitza herrixari emon bihar jako, autodeter-minazio eskubidea errekonozituz.

“Batasunak garbi esan dau gaur bertan jarriko dala mahai horretan. Bestiak ez dabe, momentuz, ezer esan”

Beste alderdien inguruan zein erantzun duzue?(EAJ-EA, PSE, PP, EB, ARALAR)

EAJ-EA: Programak indefinizioa eta ausardiarik eza adierazten dute.

PSOE: iragana errepikatze formu-larik onena litzateke. PP gatazkaren lu-

zapena eta euskaldunonganako errepre-sioa ziurtatzen ditu. EB-k pakete ederra dirudi kanpotik baina barrua hutsa du. Aralar, une historiko batean ezker aber-tzalea zatitu duen alderdia da

“Gatazka politikoaren kon-ponbidea da gure lehenbiziko lana.”

EHAK-k zenbat eserleku lortu-ko dituela uste duzue?

Gu baikor gara honetan be. Kopuruak ez dosku lorik kentzen. Badakigu abertzaleen, ezkertiarren eta aurrera-kioen botua izango dabela EHAK, eta hurrengo legislaturan zer esan haundixa izango dabela.

Non jarraituko dituzue hauteskundeetako emaitzak?

Euskal Herriko emaitzen jarraipena La Casillan egingo dau EHAK. Herrixan seguraski, elkarte batean edo alkartuko gara.

Eta 18an zer?

Eskubide zibil eta politikoen alde egitten jarraituko dogu. Langile eta herri sektoreen aldarrikapenak jorratuko dittugu.. Eta gatazka politikoaren kon-ponbidea gure oinarri bat izango da, gure lehenbiziko lana. 17an EHAKri bo-tua emonaz, 18tik aurrera bakea gertua-go izango dogu.



Javier Nuñez



Javier Nuñez Udaletzeko zinegotzi-gelan zegoen gure zain. Oso kontzentraturik egon da elkarrizketan, beti ere hitzik egokienak bilatzen ahaleginduz. Amaitu dugunean legebiltzarreko zerrendetan doazen plazentziatarrereri buruz jardun dugu. "A los malos no nos ponen" esan du txantxetan.

Zer dago jokoan hauteskunde hauetan?

Asko dago jokoan, Euskadiren etorkizuna erabakiko da.

Zergatik eman behar genioke gure botoa alderdi popularrari?

Etorkizuna, egonkortasuna, progresua eta askatasuna bermatzen dituelako.

Alderdi popularrak dio bloke nazionalistak euskal gizartea zatitzen duela. Zuek bloke konstituzionalistaren aldekoak zarete. Zergatik ez du bloke honek gizartea zatitzen?

Esaten da bloke nazionalistak zatiketa ekartzen duela, 25 urte eta gero nabarmen ikusten delako egungo euskal gizartearen zatiketa. Zatiketa hori egunero ikus daiteke: gizarte bat lasai asko bizi den bitartean, bestea terrorismoaren mehatxupean bizi da. Bloke konstituzionalistak askatasuna eta gizarteberdintasuna eskeintzen ditu. Hori bermatuko du.

Elkarbizitzarako ze proposamen egiten duzue?

Alderdi popularrak elkarbizitzarako proiektu bakarra dauka: Konstituzioa eta Estatutua. Behin eta berriro errepikatzen dugu, bai hauteskunde hauetan, bai aurrekoetan eta baita ondorengoean ere.

Azken 25 urte hauetan Euskadik sekula baino autogobernu eta progreso maila haundiagoa lortu du

Konstituzio eta Estatutuarekin. Dena hobetu daiteke, baina beti ere marko honen barruan. Horregatik, gure postuarekin ez mugitzea leporatzen digute. Guk jakin nahi genuke besteen elkarbizitzarako proiektua zein den, argi eta garbi esan dezatela.

Beste alderdien inguruan zein eritzi duzu?(EAJ-EA, PSE, BATASUNA-EHAK, EB, ARALAR)

-EAJ-EA:

Ibarretxe plana eskeintzen digu, mas

"Bloke konstituzionalistak askatasuna eta gizarte-berdintasuna eskeintzen ditu. Hori bermatuko dugu"

de lo mismo. Ez digute argi eta garbi esaten bere hauteskunde-programak, Ibarretxe planak norantz garamatzen. EAJ-k esan behar liguke pentsioak nola ordaindu behar dituen eta nola eutsiko dion ekonomiarri.

-PSE: Bere jardunean, ondo kalkulaturiko anbiguotasuna eta bere sintziritate falta nabarmenduko nituzke. 11 eguneko hauteskunde-kanpainaren ondoren Lopez jaunak ez digu esan zeinek in gobernatuko duen. Ez bada gauza galdera horri erantzuteko, zer eskeinko die Euskal Herritarrei? Ez dakigu alderdi sozialistak zer defendatzen duen. Lo-

pez jaunak argi dauka zer egingo duen baina ez du esaten.

-BATASUNA-EHAK: Batasunak ez du parte hartuko hauteskundeetan eta EHAK-k ere nire eritziz ez luke hauteskundeetan parte hartu behar terrorismoa kondenatzen ez duten bitartean. Terrorismoa kondenatzeko ez-gauza den alderdi bakar batek ere ez luke partu hartu behar prozesu demokratiko baten eta nik ez diet entzun EHAK-koei terrorismoa kondenatzen.

-EB: ez dut ezer esango. Nire iritzia azaltzea oso erreza da baina ez da publikatzeko modukoa.

-ARALAR: Hauteskunde hauetako alderdi politiko bat gehiago da, postulatu okerretatik desmarkatzen eta Euskadiko joko demokratikoan sartzen jakin duena.

PP-k zenbat eserleku lortuko dituela uste duzu?

Azkenengo emaitzak hobetzea espero dugu. Ibarretxe plana desastre bat izango dela dakiten boto-emileen babilasa espero dugu batez ere, eta alderdi sozialista posturagile haundienari salduko zaiola dakitenena ere bai.

Non jarraituko dituzue hauteskundeetako emaitzak?

Donostiako Costa Vasca hotelean

Eta 18an zer?

Etorkizun berri bat espero dugu Euskadin, euskal herritar guztiak berdinak izatea eta askatasunean bizitzea.



Soledad del Bosque

Soledad del Bosque Udaleko zinegotzi-gelan zegoen gure zai. Elkarrizketan zehar behin baino gehiagotan aipatu digu bizi duen egoera pertsonala. Amaitzean, kontzejupera jeisteko eskatu diogu, bigarren argazki bat ateratzeko. Telefono txikia hartu eta "beheruntz noa" esan du.



Zer dago jokoan hauteskunde hauetan?

Asko dago jokoan. Bizi dugun egoera honekin amaitu behar dugu. Oposizioa ezin da bizkarzainekin bizi; kazetariak, kultur munduko jentea...herri honetako biztanleen erdia askatasunik gabe bizi da. Eta noski, alderdi politiko bakoitzaren proiektu politikoa ere jokatzeko dugu hauteskunde hauetan. Horregatik, igandean inor ez litzateke etxean geratu behar.

Zergatik eman behar genioke gure botoa alderdi sozialistari?

Jenteak PNV-ri ematen badio botoa, berdin-berdin jarraituko dugu, edo oke-rago, Ibarretxeren planak euskal gizar-tearen zatiketa areagotuko baitu. Alderdi Popularrari dagokionez, ikusi dugu 8 urtean zer egin duten Madrilin. Egia esan, hauteskunde hauetako debateak jarraitu ditut eta ez diet entzun esaten zer egin nahi duten edo zer programa duten. Alderdi sozialistak herriaren batasuna nahi du; gazteengatik egingo du lan, enpleguaren eta etxebizitzaren alde.

Onartuko al luke alderdi sozialistak bake eszenatoki berri baten euskal herritarrek euren etorkizunaz erabakitzen dutena?

Nik uste dut euskal herritarrek botoa ematera doazenean erabakitzen dutela. Orduan denok erabakitzen dugu. Pentsatzen dut Ibarretxe plana ez nukela onartuko, berriz ere Herria zatitzea su-

posatuko bailuke.

Elkarbizitarako ze proposamen egiten duzue?

Biolentziarik gabeko egoera berri baten adostasun batera irits gaitzke (bere garaian egin genuen bezela), baina horrela ezin da lanik egin. Herrietako jentea zatiturik bizi da eta horrela ezin da aurrera egin, ezinezkoa da industria arloan ere aurrera egitea.

Beste alderdien inguruan ze irizti duzu?(EAJ-EA, PSE, Batasuna-EHAK, EB, Aralar)

"Ibarretxeren plana erokeria bat iruditzen zait. Goitik behera irakurri dut eta herri honetako izango ez banintz bezela sentiarazi nau"

EAJ-EA: Plana erokeria bat iruditzen zait. Goitik behera irakurri dut eta herri honetako izango ez banintz bezela sentiarazi nau. Gainontzean, bere politika erabat bidezkoa iruditzen zait.

-PP: ez ditut bere proposamenak eza-gutzen

-BATASUNA-EHAK: Batasunaz epaileak esan ditu esan beharrekoak. EHAK hauteskundeetara aurkeztea perfektu iruditzen zait, guk besteko eskubi-dea daukate

-EB: egia esan, ez dakit zer egiten duten gobernuan, baina libre dira nahi dutena egiteko

-ARALAR: ez ditut euren ideiak konpartitzen -horregatik naiz beste alderdi batekoa- baina bide politikoa hartu dute eta hori oso ondo iruditu zait.

Non jarraituko dituzue hauteskundeetako emaitzak?

Soraluzeko Herriko Etxean.

"Ibarretxeren plana erokeria bat iruditzen zait. Goitik behera irakurri dut eta herri honetako izango ez banintz bezela sentiarazi nau"

Eta 18an zer?

-18an denak garaipena ospatzen egongo dira, danak pozik. Kuriosoa izaten da, baina inork ez du galtzen hauteskundeetan. Alderdi politiko bat botoetan jeitsi arren, igo egiten da nolabait. Zentzudunena izango litzateke emaitzen arabera mahai baten bueltan eseri eta hitzegitea; hemen oso gutxi egiten den zerbait.

Zerrendetako soraluzetarrak

- 1.-Zenbagarren zerrendan?
- 2.-Adina
- 3.-Ikasketak/lanbidea
- 4.-Esperientzia politikan?
- 5.-Zerk bultzatu zaitu zerrendetan joatera?

- 6.-Legealdirako 3 helburu
- 7.-Zein alderdirekin osatuko zenuke gobernua?
- 8.-Miresten duzun politikari bat?
- 9.-Miresten ez duzun bat?

- 10.-Lehendakari banintz...
- 11.-Politikariek gizur asko esaten dute?
- 12.-Zer dauka ona eta ez hain ona zuen lehendakariak?



Mikel Santiago Arizaga



Esozi Leturiondo Aranzamendi



- 1.-13. lekuan.
- 2.-31 urte.
- 3.-zuzenbide ekonomikoan liz. /justizia, lan eta gizarte segurantz saileko kabinete zuzendaria.
- 4.-EA-ko legebiltzar taldeko teknikaria.
- 5.-Proiektu berri baten aldeko apostua da, erronka bat.
- 6.-Bakegintza,normalizazio politikoa eta lurraldetasuna.
- 7.-EB-rekin edo giza eskubide guztien alde egiten duen edozein talde abertzalarekin.
- 8.-Carlos Garaikoetxea.
- 9.-Jaime Mayor Oreja.
- 10.-...Ibarretxek hasitako bidia eutsiko nioke euskaldunoi erabakitzeak daukagun eskubidea aitortu arte.
- 11.-Batzuk beste batzuk baino gehiago.
- 12.-Agindutakoa betetzen dau. Ni EA-koa naizen aldetik, EAJ-koa izatea, horixe esango dut.

- 1.-4. lekuan Arabako zerrendan.
- 2.-53 urte.
- 3.-Magisteritza/Institutoko irakaslea.
- 4.-Ez daukat esperientziarik politikan.
- 5.-Alde batera edo bestera joateko momentua da. Emakume naizen aldetik ere, ezin nion eskeintzari ezetz esan.
- 6.-Bakea, elkarbizitza eta lege ezkertiarak.
- 7.-Zenbat eta partidu gehiagorekin, hobe.
- 8.-Nere gizona zena (Mario Onaindia). Bai politikari eta bai gizaseme bezala.
- 9.-Bush.
- 10.-...oposizioa ez zen baztertuta eta mehatxatuta egongo.
- 11.-Gezur-gezurak ez. Bete ezin diren gauza politikak esaten dituzte batzutan.
- 12.-Esperientzia falta du agian, baina hori ona da aldi berean, ez baita orain arteko istiluetan sartuta egon.



Soledad del Bosque Zarobe



Iñigo Alberdi Amasorrain



- 1.-19. postuan.
- 2.-55 urte.
- 3.-Administratzaile laguntzailea.
- 4.-Herri mailako esperientzia daukat politikan.
- 5.-Alderdiak proposatu zidan eta onartu egin nuen.
- 6.-Herria batzea, 0-3 urte bitarteko haur hezkuntza bultzatu eta lan eta etxebizitzaren arazoari aurre egitea.
- 7.-Soledad del Bosque Alderdi Popularrarekin ez.
- 8.-Felipe González.
- 9.-Ibarretxe. Baztertzaila da oposizioarekin.
- 10.-...alderdiekin batu eta terrorismoarekin bukatu.
- 11.-Gezurra esan gezurra esatearren ez.
- 12.-Kale-kaleko mutila da. Beharbada konfiatuegia.

- 1.-16. postuan.
- 2.-32 urte.
- 3.-Zuzenbidea eta musika/Kutxako enplegatua.
- 4.-Bergako Udalian Kultura Batzorde buru, Aberri Batzarreko mahaikide eta Bergako Uri Batzarreko presidente.
- 5.-Nere izena proposatu zuten eta konprometidu nitzan.
- 6.-Bakegintza, herriari hitza ematea eta justizia soziala.
- 7.-Ezker Batuakin.
- 8.-Mirestu bape. Estimatu Ibarretxe.
- 9.-Maria San Gil.
- 10.-...ipinita dagoen bidia jarraituko nioke.
- 11.-Bai, pentsioen gainian esan dituztenak adibidez.
- 12.-Hitzeko eta langilea da. Ezer txarrik ez dauka.

Lau miloi eta erdiko aurrekontua onartu du Udalak 2005erako

Eguenean onartu zuen Udal Batzarrak 2005erako aurrekontua, 4.553.018 eurokoa. EAJ-EAren aldeko lau boturekin (EAJko zinegotzi bat ama hil zitzaiola eta joan ezinik gertatu zelako) eta alkatearen graziazko botuarekin onartu behar izan zuten azkenean aurrekontua, bi botazio egin ostean. SAHeK (3) eta PPK (1) kontra bozkatu zuten eta PSEE (1) abstenitu egin zen.

Aurrekontuko 1.639.518 euro inbertsiotan xahutuko dira. Izartu I eta Izartu II (herriaren erdigune historikoaren eraberritzea), Ikastetxeko jolastokia estaltzea... Horretarako 374.590 euroko mailegua eskatzeko asmoa du Gobernu Batzordeak (egueneko batzarrean onartu ez zen arren beste batzar bat deitzeko asmoa dute).



Batasunaren ekitaldiak debekatu ditu Udalak

Apirilaren 6an "Hauteskunde Demokratikoak-ilegalizaziorik ez" le-mapean hitzaldi bat emateko asmoa zeukan Soraluzeako Batasunak. Horretarako, aurrez, kiroldegiko lokala uzteko eskaera egin zion Udalari. Erantzuna ezezkoa izan zen. Batasunak bertan behera utzi behar izan zuen hitzaldia eta gogor salatu du Gobernu Batzordearen debekua. Oscar Gabilondo Alkateak azaldu digu berak legea bete behar duela -zigorra jaso dezake bestela- eta hauteskunde legeak galerazi egiten diela hauteskundeetara aurkezten ez diren taldeei lokal hauen erabilera. Eskerra beste talderen baten izenean egiteko proposatu zien alkateak Batasunako ordezkari baina hauek ez omen zuten onartu.

Itoizko koordinadorari laguntzeko ekimenak

Astebururako Itoizko urtegiaren aurkako Itoizko Solidarioen Koordinadorari laguntzeko hainbat ekitaldi antolatu dira Gaztetxean. Ostiralean, hillak 15, gai honen inguruko hitzaldi bat izango da Gaztetxean bertan 18:30etan, eta zaptuan, berriz, Dejavu, Fly Shit eta Jauko Barik taldeek kontzertua eskeiniko dute gaueko 11etatik aurrera.

Danborradako antolakuntza batzordeak jendea behar du

Danborradako Batzordeak, 4-5 herri-tarren laguntza eskatu du 2005. Urteko danborrada antolatu ahal izateko. Kolaborazio nahikoa ez badago, aurrez danborradarik ez dela izango adierazi du Batzorde antolatzailerak. Laguntzeko prest daudenei dei egiten die apirilak 27an arratsaldeko 7:30etan Ibai-Eder Elkartearen egoitza bilerara etortzeko.

Arratoiak Plazan

Azken asteotan, herritar batek baino gehiagok eman du abisua udaltzaingoan Plaza Zahar inguruan arratoiak dabiltzala jakin arazteko. Nonbait, Gabolatseko etxeak bota zituztenetik iparra galduta dabilta, eta ibai inguruan ibiltzen badira ere tarteka Plaza Zaharrera igotzen dira. Udaltzainek aparejadoreari pasatu dioten txostenaren arabera, bi dozena arratoi bata bestearen atzetik ikusi dituzte zenbait herritarrek. Fumigazioaz enpresa bat arduratu ohi da.

Limpiezas MEN



Era guztietako garbiketak
Bulegoak - Komunitateak
Atariak - Garajeak

M. Carmen Alonso 690792816
Telefonoa 943753079 - 20590 Soraluze

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

GAZTELUPE taberna



tel: 943 75 20 81



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE



DANTZARI EGUNA 2005

Dantza ikuskizunak, sagardoa eta erromeria izango dira zapatuko Dantzari Egunean



Inguruko herrietako dantzari eta dantzalez beteko da herria zapatuan.

Zapatuan egingo da herrian 2005eko nagusien Dantzari Eguna Euskal Jai Batzordeak antolatuta.

Dantzari Eguna urtero antolatzen da txandaka Debagoieneko herrietan. Sei urtean behin antolatzen du herri bakoi-tzak eta sei urteren ostean aurten Soraluze-ri egokitu zaio antolaketa lanen ardua hartzea.

Dantzari Egunean Oñati, Arrasate,

Antzuola, Bergara eta Soraluze-ko dantza taldeak izango dira protagonistak. Guztira 200 dantzari inguru elkartuko dira.

Berrikuntza ugari

Orainarteko edizioak beti domek-tan antolatu izan dira baina aurten lehen aldiz antolatzaileek zapatua pasatu dute Dantzari Eguna. Zapatua dantzan

EGITARAUA

- **11:00etan** ongi etorria dantzari-ri
- **12:00etan** kalejira
- **12:30etan** goizeko alar-dea
- **14:30etan** dantzarien bazkaria
- **17:00etan** arratsaldeko alardea
- **19:00etan** sagardo das-taketa eta Patxi Perez eta kona-pinia! taldearekin dantzaldia. (Euria bada, dantzak Kirolde-giko frontoian egingo dira.)

eta jai giroan ibiltzeko egun egokiagoa denaren ustearekin egin dute aldaketa. Egunari bizitasun handiagoa ematea da helburua.

Horretarako, dantza erakustaldiez gainera, eta egunean zehar jai egitarau erakargarriagoa eskeintzeko asmoarekin, bost sagardotegitako sagardoak izango dira dastagai eta erromeria ere izango da Patxi Perezen taldearekin.

Plazatik Gaztetxerako bertso saioa maiatzaren 29an Soraluzean

Apirilaren 29an, aurtengo Plazatik Gaztetxera Bertsolari Txapelketaren hirugarren eta azken kanporaketa jokatu-ko da Soraluze-ko Gaztetxean. Kanporaketa saio honetan sei bertsolari gaztek partehartuko dute (tartean soraluzetar batek ere bai); Enaitz Alustiza (Bergara), Eneko Abasolo "Abarkas" (Iurreta), Agin Rezola (Astigarraga), Lander Ibarluzea "Atxulua" (Etxeberri), Xabier Astigarraga (Mutriku) eta Egoitz Unamunok (Soraluze). Gaueko 22:30etan hasi-



ko den saioaren aurretik afaria izango da Gaztetxean.

Hauek dira txapelketan jokatu-ko diren gainerako saioen egutegia:

Apirilaren 15ean (1nengo kanporaketa) Ondarroako Gaztetxean

Apirilaren 22an (2. Kanporaketa) Debako Gaztetxean

Maiatzaren 7an (Finala) Mutrikuko Gaztetxean

Telefona 75 24 09

ARRANO

tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Lakuesta

Optika

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

Pastora Iraola

Pastora 1916. urtean jaio zen bere aldamenean ageri den etxean, gaur egun Lacuestaneko etxeaz ezagutzen den eraikinean. 89 urte beteko ditu datorren astelehenean.



Pastora Iraola.

“Errotatxoneko” Pastora edo Pastora “Otolak” askotan esaten du bere buruagatik: “La Pastora”. Lehenengo pertsona hitzegin beharrean, hirugarrenean egiten du gure protagonistak. Datorren astelehenean 89 urte beteko ditu, baina burua 20 urteko batena dauka. Gerra denborako kontuak atzo gertatu balira bezala kontatzen ditu,, zehatz-mehatz eta zalantzarik erakutsi gabe. Inor izatekotan, bera da gaur egungo gerra eta gerra osteko kronista sozialik berbatsu eta emankorrena. Berarengana jo dugu sasoi bateko kontu gehiago jakitze aldera. Hauek dira elakrriketa luze batetik atera ditugun pasarte batzuk.

-Noiz jaixo ziñan?

Abrillan 18xan 80 urte egingo ditut. (ixilunia). 80? Ze 80? Gaizki esan dotsut, , larogitabederatzi!! Bajatzerik ez dot nahi! Baina noventara be ez dot nahi allegatzerikan. Esaten doste kalia: zuk 90 be hartuko dittuzu, baina ez, nik ez dot nahi.

-Nun jaixo ziñan?

-Herriko zentro-zentruan. Lacuestaneko etxia Otolana zan, geure-geuria. Danok hantxe jaixuak gara. Soziedadia zeguan bertan eta comestible dendia be bai.

-Nun zenden gerria etorri zanian?

Azkoittixan nenguan, tianian josten ikasten. Nik orduan ez neban nahi eskolarikan. Foballa eta pelotia gustatzen jatazen. Pelotan be egitten neban, ezkerakin.Oin be domeka atsaldetan gustora egoten naiz telebisiño aurrian. Ba tianian nenguala, komandantziatik deittu zeben, etxian hiru gaixo zerela eta pla-

“Karretilla zatar batekin ibiltzen nitzan batetik bestera gaseosa banatzen. Duruan saltzen neban.”

zentiara etortzeko. Ordena zeguan ni etxera bueltatzeko eta bi soldaokin bialdu ninduen, mendiz. Orduan 20 urte nekazen eta “Chata!!” esate osten. Nik “...pero guapa!” kontestatzen neban.

-Plazentziara etorri zinianian zetan hasi zinan?

Etzekuen arduria hartu bihar izan neban lehenengo; ama, tia eta tiona, beste etxeko danak ihes eginda zeren eta. Tio mutua zan, listo como el solo, danekin ibiltzen zan txikiteuan urtetze ebanian. Gero, gaseosia egitten hasi nitzan, saltzeko. Sekula gaseosarik egittteke nenguan baina gaizki edo ondo ikasi neban.

-Zela egitten zenduan gaseosia?

“Jentia gosiak eguan eta estraperlua egitten hasi giñan. Harrapatzen zoskue-nian multia!”

Botekada almibarra eta oranjia egitten notsan, neurrixan. Hasieran problema euki nittuan gasakin. Ez nekixan sifoiak zela funtzionatzen zeban. Gomia-kin bueltak emoten notsazen limonada botilliorri baina pasatzen zanian danak errebetatzen zotan. Gure lehenusuak -graziak berari-bazekixan sekretua eta harek esan zotan erlojua seisimeduan

jartzeko. Handik aurrera egunero-egunero hasi nitzan gaseosia saltzen.

-Asko saltzen zenduan?

Bai, asko. Jotafuego ibiltzen nitzan gaseosiakin. Karretilla zatar batekin ibiltzen nitzan batetik bestera gaseosa banatzen. Duruan saltzen neban gaseosia. Asko estimatzen zan orduan.

-Ze giro bizi zenduen orduan?

Gizonak juan eta andrak umiekin hamen geratu ziranak ezebe barekan, rantxora joaten ziran. Jentia gosiak eguan eta estraperlua egitten hasi ginan. Harrapatzen zoskueneian multia. Txapel gorrixan rantxua plaza zaharrian izaten zan. Gizajuak! “Guk be ideia haundirik ez dakagu baina hau jarri doskue eta...” esaten eben. Etxe guztietan alkondara eta fraka billa ibiltzen ziran. Soldau erenak (plaza berrixan jaten eben), harek bai, militar jantzitta derrigor juan bihar zeben.

-Dibersiñorik bazan orduan?

Bailia izaten zan. Pentsaizu, gurian pianua eta pianoia be baziran. Pianolia sutarako hartu bihar izan neban. Beste ezer ez zeguan berotzeko.

-Sasoiko kanturen bat goguan dakazu?

Euskeraz? ia akordatzen naizen: “Habanara juan nintzan zentimorik gabe handik etorri nintzan maitia bost milloiren jabe. Txin-txin, txin-txin, diruaren hotsa, haretkek ematen dit maitia bihotzian poza!”

**Jose Luis
Fernández**

Boleibol jokalaria



Jose Luis erremate bat egiten.

Jose Luis Fernandez kirolaria da boleibol jokalaria baino gehiago. Urterik gehienak boleibolari eskeini baldin badizkio ere, beste hainbat kirol praktikatu ditu plazentziatar ipurterre honek: esku-baloia, atletismoa, pentatloia, karatea...

Noiz hasi zinan boleibola praktikatzen?

17 urte nekazentian hasi nitzan jokatzen, eskola armerixako taldian. Gero Eibarko unibersidadeko taldian jarraitu neban beste 3 edo 4 urtian soldaduzkara juatia tokau jatan arte.

Eta soldaduzkan?

Soldaduzkia Mallorcan egin neban eta han ohorezko mailako talde profesional baten jokatu neban, Sonamarren.

Soldaduzka egitten jardun neban urtian kirol asko egin neban boleibolaz aparte. 800 metrotako lasterketan eta pentatloian (taldeka) Balearetako txapel-dun geratu nitzan. Horrek aukeria emon zoskun Espainiako txapelketan parte

hartzeko. Euskadiko selekziñuakin be konbokauta egon nitzan eta Cuba, Portugal eta Italiara juañ gifañ.

Eta Mallorcatik bueltan?

Galdakaoko boleibol taldiakin hasi nitzan. Gero alde batera laga neban boleibola eta 7 urtian karate egittten ikasi neban. 4 aldiz geratu nitzan gipuzkoako azpi-txapeldun. Beti berdina irabazten zozan (jaja)

Eta oin boleibolian berriz?

Oin dala 8 urte Durangora etorri nitzan, Sapuherrri taldera. Bigarren maila nazionalian jokatzen dogu, foballian 3. maila bat izango litzakena.

Afiziñorik badago Durangon?

Hortan saiatzen gara, afiziñua egittten. Poliki-poliki badoia aldizkari, egunkari eta Teledurangori esker.

Eta Plazentzian?

Nik 15 bat urte nekanian bazan haren Peter izeneko tipo bat. Harek Espaiñiako selekziñuakin jokatu zeban. Haren beste berririk ez dot euki.

EMAITZAK

Futbola

-Apirilaren 9an-
Zumaiako 3- SORALUZE 2 (Erre.)
Urki 11-SORALUZE 2(Jben.)
SORALUZE 4-Zestoa 2 (Kadet.)

Esku pilota

Iñaki Jauregi

Mallabian,
Retegi II-Jauregi 22
Garcia-Patxi Ruiz 20
Iruñean,

Patxi Ruiz 22-Jauregi 4

Aitor Atxotegi

Deba ibarreko txapelketan, lehenengo partiduan,
Portu-Atxotegi 22
Muguruza-Aldai 12

AGENDA

Pala txapelketako ligaxkan

Apirilaren 17an
Ibabe-Unamuno
Calles I -Calles II (12:00etan)
Zigor-Jokin
Eneko-Ivan (13:00etan)
Apirilaren 23an
Zigor-Jokin
Calles I-Calles II (12:00etan)
Ibabe-Unamuno
Eneko-Ivan (13:00 etan)

Futbola

Eibartarrak-Soraluze (erreg)
Zestoa-Soraluze (jub)
Bergara-Soraluze (kadet)
Mendi irteera
Apirilaren 24an, Jaizkibelera
545m. (Trintxerpe-Guadalupe)

VIDAL
frutadenda

Etxaburueta 2
Tel. 943752055

UFALA
irish pub

zatoz !
apirilaren 21ean
20:00etan
inaugurazio
ekiltaldira

Mendata taberna

Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki Menestra,
Gixauak...
Asteburuan plater konbi-
natuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

PASCUAL CHURRUCA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruca.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Ane Ugalde

"Dantzari Eguna urte askuan herrixan antolatu dan dantza ekitaldirik haundixena izango da"

Orain sei urte eman zuen izena Anek (22 urte) Urrats Dantza Taldean. Orain hiru urtetik, taldeko beste dantzari batzuekin batera dantza taldearen jardunaren ardura hartu du. Orain, zapatuan egingo den Dantzari Egunaren antolaketa lanetan dihardu Euskal Jai Batzordeko gainerako kideekin batera.

Zenbat dantza dakizuz?

Zortzi dantza inguru.

Zein dantza dozu gustokuen?

Arabako popurrixa. Mixtua eta popurrixa dauzka, danetik pixkat.

Zein egiten jatzu zailena?

Kaliak-ekin orientaziño problemak eukitzen ditut.

Ze egoeratan dago Urratsa Dantza Taldea?

Lehenago izan dan egoeria kontuan hartuta nahiko ondo. Gogo haundixa dago aurrera egiteko. Hiru talde osatu ditugu. Txikixen talde bat (4-9 urte bitartekua) 2003ko irailetik eta adin horretatik gorakuen neska eta mutilen talde bana. Azpiegitura falta da arazo nagusia. Entsaiazteko egoitza egoki bat eta materixala ganoraz gordetzeko lokal baten biharrian gare.

Neska gehixao dago mutilak baino?

Bai, askogaitik baina aurten mutilen talde nagusixa osatu adibidez. Txikixenen taldian bihar ditugu mutilak.

Ze ekitaldi antolatzen dozue urtian zihar?

Aurten, Aratustietan eta Korrikan saio bana eskeini dogu dagoeneko. Oin Dantzari Eguna egingo dogu eta maiztetik aurrera gaztetxuen euskal jaixak inguruko herrixetan (Bergaran, Antzuolan, Oñatin, Arrasaten, Aretxabaletan...). San Andresetan eta herriko jaixetan be egingo dogu dantzan.

Zela doiaz Dantzari Eguneko antolaketa lanak?

Oso ondo. Euskal Jai Batzordian Urrats Dantza Taldeak, Pil-pilean Euskara Elkartiak eta lehenago dantzan ibilitakuak parte hartzen dabe. Gainera eguna antolatzeko Allegro,

Bertso Begiz

*Izerdi eta hauspo ugari
emon dotsazu dantzari,
gozamen eta harreman asko
emon dotsuz berak zeuri.
Dantza Taldea ondo badoia
zeuengatik da hori,
segi dantzekin gozatzen eta
eskerrik asko danori,
ta bide batez aitari.*

Etxebarri

*(Doiua: Lazkao Txikiren
marrazkietakoa...)*



Ane Ugalde

Arrano eta Ibaieder soziedadiak eta 30 bolondres inguruk lagunduko doskue eta hori gauza haundixa da.

Zer helburu dauka?

Dantzari Eguna urte askuan herrixan antolatu dan dantza ekitaldirik garrantzitsuena da. Bailarako dantzarixak batu eta ikuskizun erraldoi bat eskeintzia da helburua. Dantziaren jaixa da.

Domekatik zapatua aldatu da.

Lehenengo aldiz egingo da zapatuan. Domekan egin izan danian, dantzak amaitu eta bakoitza bere herrira juan izan da. Zapatuan jarrita, eguna luzatu eta dantza ikuskizunaz gain dandako jai bat izan dein lortu nahi dogu.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Argazki zaharra

Iturria: Carlos Tornos

**Monagillo
Football Club**

1961. urtean parrokiako monagillo futbol taldea Oñatiko seminariora joan zen partidu bat jokatzera. Argazkian sotanaz jantzita ageri dena Don Enrique da, Soraluzen urte askoan abade izan zen elizgizon Aretxabaletarra. Seminariotik urten berritan etorri zen gure herrira, 50. hamarkadan, eta oso estimatua izan zen. Pelota eta futbola asko gustatzen zitzaizkion. Argazkian ageri den ekipoa ere berak animatuta sortu zen. Ezkerretik eskumara monagillo hauek ageri dira:

Jose Francisco Zabala, Julian Zarobe, Carlos Tornos, Don Enrique, Fernando Martínez, Jose Luis Preciado. Behean, Jose Luis Badiola, Fermín Jiménez "Txito", Jabier Elizburu eta Serrano

Lehiaketa

Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

***Bi lagunendako
afari mundial bat
irabazi zeinke!!***

DEITTU

943 75 13 04 ra

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa

tf: 943752150
Faxa: 943752118

SORALUZE

**ESKUBIDE ZIBIL ETA
POLITIKOEN ALDE**

ORAIN



BOZKATU



DEMOKRAZIA eta BAKEA

Ion Murgizu Pinturak

- Margoketa orokorrean -

Empapelatuak,

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak


Pintura industrialak

Telefonia 943751324
Mugikorra 652777030
Ezoziko etorbidea 24 2 behea
20590 Soraluze

1. bat gehiago izan
2. nire umea ekarri
3. itxaropena



1. lana
2. nire lagunak
3. planeta



1. enplegu iraunkorra
2. etxebizitza
3. familia



1. erantzunak
2. elkarrizketa
3. aurrera



1. ongizatea
2. maialen
3. bakea



Ilusioz begiratzen diogu denok etorkizunari. Horregatik, eskatzen dizut botoa, Apirilaren 17an. Bakea eta zure beharrei erantzungo dien garapena lortuko dituen eta euskal gizarte osoari ongizate hobea ekarriko dion egitasmo bateratuari bultzatzen jarraitzeko. Nahi duzu. Ahal duzu.

Elkarrekin egingo dugu.

eman botoa



E U Z K O A B E R T Z A L E A K

eusko
alkartasuna



EAJ
PNV

